



Lectura fácil

Zentro motak eta beren balioak



**Dibertsitate funtzionala duten pertsonen
arretarako zentroen oinarrizko estatutua**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



© Lectura fácil Europa
Logo: Inclusion Europe
Más información en:
www.easy-to-read.eu

Araba, 2021

“Dibertsitate funtzionala dutenentzako
Arabako Lurralde Historikoko
eguneko Egoitza Arretako Zentroen
eta Zentro Okupazionalen Oinarrizko Estatutua”ren
I. Tituluaren (Xedapen orokorrak) egokitzapena erraz irakurtzeko,
irakurketa errazari buruzko
UNE 153101:2018 EX arauarekin bat etorriz.

Argitaratzailea

Arabako Foru Aldundia

Erraz irakurtzeko egokitzapena

Irene Vera de la Fuente

Egokitzapenaren balidatzaileak

Saray Guaza Chamorro

Gregorio Cintas Jiménez

Óscar Pueyo González

Testuaren diseinua Irene Vera de la Fuenteren
diseinuan oinarritzen da

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Zentroak	6
Zentro motak	8
– Eguneko zentroa	8
– Zentro okupazionala	10
– Egoitza zentroa	11
Zentroen balioak	13
Zentroen arauak	17
Legeak	18

Aurkezpena

Arabako Foru Aldundia
Arabako gobernu organoa da.

Aldundiak
dibertsitate funtzionala dutenentzako
Arabako Lurralde Historikoko
arretako zentroak arautzen dituen
oinarrizko **estatutua** idatzi du.

Zentroen estatutuaren helburuak
honako hauek dira:

- Azaltzea nola antolatu behar diren **zentroak**.
- Zentroak erabiltzen dituzten pertsonen eta haietan ari diren profesionalen eskubideen eta betebeharren berri ematea.

Arabako Foru Aldundik
erraz irakurtzeko moduko 5 gida prestatu ditu
estatutu hau azaltzeko.

Estatutua
dokumento ofiziala da, esaten duena nola antolatu behar den zerbitzu edo zentroa eta nola behar duten bertakoek.
Hemendik aurrera, Zentroen Estatutua esango diogu.

Dibertsitate funtzionala
desgaitasuna esateko beste modu bat da.

Hemendik aurrera **Zentroak** aipatzen direnean, **dibertsitate funtzionala** duten pertsonen Arretarako Zentroez ariko gara

Hona:

- 1. gida: Zentro motak eta beren balioak.
- 2. gida: Erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak
- 3. gida: Zer egin zentro batean apuntatzeko.
- 4. gida: Zer egin zentroan parte hartzeko.
- 5. gida: Parte hartzeko batzorderako hauteskundeak.

Hau 1.gida da:

nolako zentroak dauden

eta beren balioak zein diren azaltzen du.

Zentroak

Zentroa dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zerbitzua da.

Zentroan bizi daiteke edo, bestela, egunean ordu batzuk eman daitezke.

Zentro hauetan arreta ematen zaie dibertsitate funtzionala duten pertsoneri, hain zuzen ere jarduerak egiteko eta bizitza proiektua betetzeko laguntza behar dutenei.

Erabiltzaile bakoitzari behar duen arreta ematen zaio.

Horretarako, zentroetan zenbait arlotako profesionalak aritzen dira. Adibidez, gizarte lanekoak, psikologiakoak eta begiraleak.

Zentro guztiek helburu berak dituzte:

- Giro egokia sortzea erabiltzaileen garapen pertsonalerako eta garapen sozialerako.

- Erabiltzaileen **ongizatea** hobetzea.
- Erabiltzaileei eguneroko jarduerak egiten laguntzea.
- Erabiltzaileak bizitza sozialean integratzea eta hartan parte hartzea sustatzea.
- Erabiltzaileen autonomía eta **autodeterminazioa** hobetzea.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak

Arabako gizarte zerbitzuen Zentro guztiekin lan egiten du.

Beraren helburuak dira zentroetan kalitate oneko arreta eskaintzea eta behar diren laguntzak jartzea erabiltzaileek beren bizitza proiektua betetzeko.

Zentroen kudeaketa publikoa edo pribatua izan daiteke.

Publikoa bada,
Administrazioak kudeatzen du.

Ongizatea ondo bizitzea da. Gustura eta lasai egotea bizitzako alderdi guztietan.

Autodeterminazioa nork bere kabuz erabakitzeke, jarduteko eta pentsatzeko gaitasuna da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Arabako Foru Aldundiaren organikoa da; mendekotasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zerbitzuak kudeatzen ditu.

Herrialde baten antolamendua eta gobernua **administrazioetan** egituratzen da. Administrazio bakoitza arlo batez arduratzen da lurralde jakin batean.

Pribatua bada,

Administrazioak kontratua edo akordioa sinatzen du
empresa batekin
eta hark urte batzuez
kudeatzen du.

Zentro motak

Hiru motatako Zentroak daude
dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretarako:

- Egoitza zentroak.
- Eguneko zentroak.
- Zentro Okupazionalak.

Eguneko Zentroak

Eguneko Zentroetan
arreta integral eta personalizatua ematen zaie
dibertsitate funtzionala duten pertsonari.

Eguneko zentroetan
autonomía eta gizarte integrazioa
hobetzen dira.

Arreta integrala
da persona baten
bizitzako alderdi
guzti-guztiaz
arduratzea.
Esaterako:
harremanak,
aisialdia etab.

Eguneko zentroetan egunez
baino ez da ematen arreta.
Beraz, ezin zara geratu lo egiten.

Eguneko zentroetara urte luzez
zein hilabete batzuez bakarrik
joan daiteke.

Eguneko zentroak
erabiltzaileen beharrianetara,
interesetara eta nahietara
moldatu behar dira.

Horregatik, eguneko zentroetan
zenbait profesionalen laguntza
jaso dezakezu;
esaterako:

- Zaintzaileak.
- Hezkuntzako profesionalak.
- Medikuntza eta erizaintzako taldea.

Eguneko zentro batzuetan **murrizketa organiko** edo fisiko oso larriak dituzten pertsonen ematen zaie arreta.

Autonomia pertsonaleko zentroak dira.

Eguneko beste zentro batzuetan adimen edo garapenako dibertsitate funtzionala duten pertsonen ematen zaie arreta.

Zentro Okupazionalak

Zentro okupazionalak lanaren arloan eta bizitza sozialean behar diren gaitasunak eta trebetasunak lantzen dira.

Hori eskuratzeko jarduerak okupazionalak egiten dira. Hau da, erabiltzaileak zentrotik kanpo enplegua lortzeko prestatzen dira.

Jarduerak horien bidez erabiltzaileen egoera berrietara moldatzeko gaitasuna hobetzen da eta beste pertsona batzuekin egoera desberdinetan aritzen ikasten dute.

Murrizketa organikoa da organo batek ondo ez funtzionatzea eta eguneroko jarduerak guztiak behar bezala egitea eragozteko. Adibidea: bihotzean gaitz bat edukitzea eta ondorioz eskailerak igotzeko arazoak edukitzea.

Erabiltzaileek

diru kopuru txikiak jaso ditzakete
jarduera okupazionalak egiteagatik.

Zentro okupazionaletan
bi modutan sustatzen dute
enplegua zentrotik kanpo:

1. Enplegua **ohiko lan merkatuan**,
behar diren laguntzekin
2. Enplegu babestua.
Enpleguko zentro bereziak
eta **laneratzeko enpresak** dira.

Egoitza zentroa

Egoitza zentroetan
aldi batez
edo betiko bizi daiteke.

Erabiltzaile bakoitzari
berak behar dituen laguntzak
eta arreta ematen zaizkio.

Egoitza zentroen helburuak honako hauek dira:

- Erabiltzaileen autonomia, gaitasunak
eta trebetasunak hobetzea

Ohiko lan merkatua

persona guztiek
(ez dibertsitate
funtzionala dutenek
soilik) lan egin
dezaketen enpresen
eta lanpostuen
multzoa da.

Laneratzeko enpresek

dibertsitate
funtzionala
duten pertsonak
kontratatzeko dituzte.
Dibertsitate
funtzionala duten
pertsonei beren
gaitasunak garatzen
laguntzen diete,
ohiko lan merkatuan
enplegua aurkitzeko
gauza izan daitezen.

- Erabiltzaileek zerbitzu orokorrak erabiltzea eta zentroko bizitzan integratzea sustatzea.
- Erabiltzaileek harremanak mantentzea beren ahaideekin eta adiskideekin Egoitza Zentrotik kanpo.
- Erabiltzaileak eguneroko bizimoduan seguro eta pozik egotea
- Erabiltzaileen arteko harremanetan errespetua eta elkar laguntzea nagusi izatea.

Bi motatako Egoitza Zentroak daude:

1. Laguntzadun etxebizitzak:

Beste pertsona batzuekin bizi zara, bai eta eguneroko bizitzan laguntzen zaituzten profesionalekin ere.

2. Egoitza zentroa.

Egoitza batean bizi zara beste erabiltzaile batzuekin. Profesional batzuek laguntzen zaituzte.

Zentroen balioak

Zentro guztiek
balio berak eduki behar dituzte.
Horrela, arreta egokia emango diete
erabiltzaileei
eta ongi antolatuta
egongo dira.

Hona hemen zentroen balioak:

- Erabiltzaileen eskubidea
errespetatzea eta babestea.
- Erabiltzaileei beren bizimodua hautatzeko
eta beren nortasuna garatzeko
aukera ematea.
- Zentroak lortu behar du
erabiltzaileak
beren etxean bezala sentitzea
eta eguneroko bizi-modua
parte ahal izatea.

- **Pertsona bakoitzari**
berak behar duen arreta integrala ematea.

Profesionalek jaramon egin behar diete erabiltzaileei eta jakin behar dute haien zer den garrantzitsua eta zer asmo duten bizitzan.

Gainera, pertsona bakoitzaren gaitasunak eta nolako laguntza behar duten aztertu behar dute.

Profesionalek ez dituzte aplikatu behar Zentroko **arauak** erabiltzaileen egoera pertsonala kontuan eduki gabe.

Araua esparru jakin bateko legea da. Esate baterako, zentroko arauak.

- **Genero berdintasuna lortzea.**

Horretarako, Zentrok alde batetik aztertu behar du nolako ondorioak dituzten antolatzen duen ekintza edo programa bakoitzak gizonengan eta bestetik nolako ondorioak dituen emakumeengan

Genero berdintasuna da emakumeek eta gizonek eskubide eta aukera berak edukitzea bizitzako egoera guztietan.

- Laguntzen **Eredua** erabiltzea.

Eredu honen ardatzak pertsonen gaitasunak eta beren autodeterminazioa dira, mugei errapatu gabe.

Eredua da araua eta balio jakin batzuen arabera lan egiteko modua.

- Bizi Kalitatearen Eredua erabiltzea.

Eredu honen ardatza da zer den garrantzitsua pertsonentzat bere eguneroko bizimoduan.

Ezinbestekoa da pertsonen iritzia kontuan hartzea bizitzako egoera guztietan.

Horregatik, zentroak persona bakoitzari bere helburuak eta nahiak lortzeko behar duen laguntza guztia eman behar dio.

- Jokabideari Lotutako Laguntza Positiboa erabiltzea.

Jokabideari Lotutako Laguntza Positiboa lan egiteko modua da.

Bi helburu dauzka: elkarbizitzako arazoak zergatik sortzen diren argitzea eta portaera egokiak sustatzea.

- Autonomia pertsonala eta bizitza independentera sustatzea.
- Profesionalen arteko lankidetzaren bultzatzea.

Arlo desberdinetako profesionalek batera lan egin behar dute. Horrela erabiltzaileen arreta hobea izango da.

- Zentroen arteko lankidetzaren sustatzea.

Zentroek elkarlanean jardun behar dute. Horrela hobeto erabiliko dituzte baliabideak eta pertsona bakoitzari berak behar dituen zerbitzuak eskaini ahal izango dizkiote.

Zentroak beste zerbitzu batzuekin koordinatu behar dira.

Hona hauekin batik bat:

- Osasun zerbitzuak.
- Trebakuntza zerbitzuak eta laneratzeko zerbitzuak.
- Hezkuntza zerbitzuak eta ikastetxeak.

Zentroen arauak

Zentro guztietan

honako lege eta balio hauek bete behar dira:

- Zentroaren arauak eta printzipioak.
- Zentroen estatutua.
- Euskal Autonomia Erkidegoan dibertsitate funtzionala duten pertsonen arretari buruz indarrean dauden legeak.

Gidaren amaieran

zentroen inguruko legeak

ageri dira.

Profesionalek, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak

eta zentroak Kudeatzen dituzten entitateek

estatutu hau betetzeko konpromisoa

hartzen dute.

Zentroen lanean ari diren pertsona guztien

helburu nagusia

erabiltzaileen eskubideak errespetatzea

izan behar da beti.

Legeak

Atal honetan
gida honekin lotutako
EAEko
lege nagusiak ageri dira.

Ez dago legeok zertan irakurri gida
ulertzeko ; gainera, ez dira erraz ulertzeko modukoak.
Nolanahi ere,
informazio gehiago nahi izanez gero,
begiratu daitezke.

- 36/2014 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena, uztailaren 22koa, mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozeduraarautzen duena, bai eta, baldintza horiek betez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen etea zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuen.

